

UDA KO TOPAKETAK

hh
hik hasi



hnikitti ♪ tannokatta



2

0


1

7

XVIII. **hik hasi** udako topaketak

2017ko uztailak 3, 4 eta 5 DONOSTIAN

2017ko uztailak 6 eta 7 LEIOAN



Sarrea

hik hasi proiektuak hemezortzigarren urtez antolatu ditu **Udako Topaketa Pedagogikoak**. Uztailaren 3an, 4an eta 5ean EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatearekin batera Donostian; uztailaren 6an eta 7an, berriz, EHUren Bizkaiko Irakasle Eskolarekin batera Leioan. Horrela, gaurkotasun handia duten gaiei buruzko ikastaroak egin ahal izango dira euskaraz.

Ikastaroak eskaintzeaz gain, hainbat arlotako irakasleak elkartzeko eta beren esperientziak trukatzeko topaleku izatea ere nahi dugu. Bertan, hausnarketa, asmo, ideia, proiektu eta berrikuntzak plazaratuko dira.

Aipatutako ikastaro guztiak goizez egingo dira Donostian, Pikler-Loczykoaren gainekoa izan ezik. Arratsaldeetan, tailerrak, aurkezpenak eta eztabaida-saioak izango dira.

Leioan, berriz, ikastaro guztiak goiz eta arratsaldez izango dira.

Ordutegia

Ikastaroak: 9:00etatik - 14:00etara goizeko ikastaroak.

Ikastaroak: 9:00etatik - 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era goiz eta arratsaldekoak.

Arratsaldeetako saio libreak, Donostian soilik: 16:00etatik - 18:30era

Topaketak, beraz, **Donostiako EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean** eta **EHUren Leioako Irakasle Eskolan** egingo dira.

Kopuru mugatuko ikastaroak

Ikastaro horietan aurrena izena ematen dutenek eta harpidedunek izango dute lehentasuna.

Hainbat esku-hartze PIKLER-LOCZY pedagogiaren ikuspegitik

Uztailak 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Hozkadak, kolpeak, negarrak, nahigabea, agresibitatea... egoera-zailak nola kudeatu?

Norentzat

0-3 urte bitarteko hurrekin harremana dutenentzat.

Uztailaren 3an, goiz eta arratsaldez

Haurren gehiegizko agresibitatea: lerro zuzenean ala kiribilean.

*Xabier TAPIA. Psikologo klinikoa.

Haurtxoaren eta haur txikiaren mundu emozional eta mentala haur-eskola bigarren etxea denean.

*Sjoukje BORBÉLY. Ortopedagogo, haur psikologo klinikoa eta familia terapeuta.

Haur-eskolako giza harremanen garapena eta bilakaera jarraia.

*Andrea SZÓKE. Budapesteko Emmi Pikler haur-eskolaren zuzendaria.

Haurren ondorezak eskolan: ekiditzeko eta bideratzeko gakoak. Eskola bateko

Haur Hezkuntza etapako irakasleen sakontze ibilbidea.

*Ezoz ARIZAGA. Psikomotrizista eta Pikler aditua.

Nola laguntzen duen eguneko ordena onak gatazkak saihestea.

*Andrea SZÓKE.

Uztailaren 4an, goiz eta arratsaldez

Haur txikiaren emozioen sustraiak, bereziki taldeko egoeratan.

*Sjoukje BORBÉLY.

Nora, zure keinu txikiei esker...

*Eider GARDE. Arbizuko Kattuka haur eskolako hezitzailea.

Hezitzailearen emozioak.

*Sjoukje BORBÉLY.

Ibai eta Pygmalion.

*Juanjo KINTELA. Psikologoa.

MONTESSORI pedagogiari hurbilpena (2-6 urte bitartean)

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Azkenaldian jende askoren ahotan dago Montessori hitza. Etxea zein eskola nola “Montessorizatu”, nola erakutsi matematikak Montessori erara, nola landu soinuak Montessori metodoaren arabera... Ikastaro horren bidez Montessori pedagogiaren oinarriak eta lan egiteko modua azaldu nahi ditugu. Montessori eskola batean dau-den txoko eta errutinak azaldu, materialen helburuak zeintzuk diren argitu eta, nola ez, materialekin praktikak egin. Hau guztia, Montessori gida edo irakaslea-ren ikuspuntutik, etortzera animatzen direnekin gure esperientzia eta nondik norakoak elkarbanatuz.

Norentzat

Ikastaroa Montessori metodoan sakondu nahi duten familia zein irakasleentzako zuzendurik dago.

Edukia

Ikastaroaren hiru egunetan, teoria eta metodoari buruz hitz egingo da: batetik, Montessorik bereiztu zituen garapen-etapa eta adin tarte horretako umeen ezaugarriak; eta, bestetik, “Haur Komunitatea” (2-3 urteko gela) eta “Haurren Etxea”ren (3-6 urteko gela) arteko bereizketa.

Materialekin praktikatzeko eta zalantzak argitzeko edota eztabaidetarako denbora ere egongo da.

* Nagore PITILLAS, Malen OLALDE, Ibone DEL POZO eta Nerea PERALES. Gasteizko Aiurri Montessori eskolako kideak izango dira emailak.

** KOPURU MUGATUA **

Ikasleak erakarri, euskaraz egin nahi izan dezaten

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Euskal Girotze Barnetegietako egonaldietan eraldaketa-prozesu bati ekiten diogu. Prozesuan, ikasle taldea eta pertsona (norbanakoa) dira gure lanaren ardatz eta erdigune. Ikasleek euskararekin duten harreman afektiboa berariaz lantzen dugu, haiek euskarara erakartzen eta limurtzen saiatzen gara, euskaraz egin nahi izan dezaten. Gure proposamenaren ardatza da ikasleek kontzientzia hartzea, euskararen atxikimendu baimenaren graduaren kontzientzia, taldean sortzen diren emozioen eta elkarrenganako dinamiken kontzientzia...

Barnetegietako dinamiketan hainbat emozio azaleratzen dira: bizipenak, sentimenduak, hunkidurak... Talde hausnarketaren bidez, barnetegian aukera ematen diegu ikasleei emozio horiek kanporatzeko, hitza jartzeko eta besteekin konpartitzeko. Euskararen hautua pertsonala da, bide hori norberak egin behar du, baina bidea denon artean eraiki dezakegu. Horixe da gure nahia, bide hori elkarrekin egitea, modu dibertigarri, ludiko eta erakargarrian.

Nola egiten dugu hori? “Agian ahaztuko dute guk esandakoa, baina inoiz ez sentitu dutena”. Horixe da gure esaldi gakoetako bat. Babesa, afektua eta segurtasuna ematen diegu. Aukerak sortzen ditugu, ikaslea entzule izatetik hiztun kontziente izatera pasa dadin.

Metodologia

Ikastaroaren izaera erabat **praktikoa** izango da eta esperimazioan oinarrituko da.

Obarra: komeni da arropa eroso eta eramatea.

* **Mari Carmen ALTUNA** eta **Amaia ZUBIZARRETA**, Elgoibarko Euskal Girotze Barnetegiko irakasleak.

* **Monika FERNANDEZ**, Barriako Euskal Girotze Barnetegiko irakaslea.

EGBen web orria: **www.barnetegiak.eus**

* **KOPURU MUGATUA** *

Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia I.

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Haurren garapen-prozesuan modu egokian laguntzeko eta lagun egiteko eskolaren nolakotasuna eta izaera errotik aldatu behar da. Eskolak ukan beharreko ezaugarriak sakonki aztertuko ditugu formazioan zehar, modu teorikoan eta bibentzialean. Haurren prozesuan oztopo baino bidelagun egoki izateak suposatzen duen aldaketa ez baita teorikoki bakarrik ikasten eta jakiten ahal den zerbait, oso garrantzitsu deritzogu helduaren hausnarketa prozesuari eta bere buruan arakatzeko gaitasunari. Horretan laguntzeko ariketak izanen dira hortaz teorikoagoak izanen diren saioen osagarri. Eskolak nolakoa behar lukeen atalean eskola baten sortze prozesuan kontuan hartu beharreko aldagaiak landuko ditugu banan banan, praktikotasun osoarekin.

Norentzat

Maisu-maistra eta irakasleentzat. Haur-hezitzaileentzat. Eskolatzeko adina duten haurren gurasoentzat, eta interesa duen edonorentzat.

Helburuak

- Haurren benetako beharretara egokitutako eskola baten nolakotasuna ezagutzea.
 - Helduen formazio-prozesuan hausnarketa bibentzialak duen garrantziaz ohartaraztea.
 - Ikastea bezain garrantzitsua da gure heziketaren ondorio diren baldintzamenduen des-ikastearen prozesua.
 - Eskola on batek ukan beharreko ezaugarriak sakontasunez eta praktikotasunez jakitea.
1. Pedagogia aktiboaren klabeak ezagutzea eta horietan sakontzea.
 2. Haurrekin kalitatearekin egoteko eta aritzeko trebatzea.

Edukiak

1. Haztea. Ikastea. Heldu bilakatzea.
2. Askatasuna.
3. Garapenaren etapak.
4. Bidelagun izatea

* Ane ABLANEDO LARRION (koordinatzailea). Bigarren Hezkuntza eta unibertsitateko irakaslea Iruñean eta Baionan. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua.

* Ane OTXOTeko VAQUERO. GOIZTIRI eskola librean koordinatzaile eta bidelagun. Haur prebentzioan aditua.

* Ainhoa ITURBE TOLOSA. GOIZTIRI eskola librean bidelagun. Psikologoa. Terapia sistemikoan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Pedagogia Sistemikoaz zenbait pintzelada

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Pedagogia Sistemikoaren oinarriko kontzeptuak ezagutuko ditugu eta ariketa praktikoaren bidez begirada sistemikoak ikasgelan bertan (baita gure familian, lantokian, lagun artean...) zer nolako aukerak eskaintzen dizkigun bizitzeko aukera izango dugu. Familia- eta eskola-komunitatearen arteko elkarlana izango dugu abiapuntu, eta ibilbide bat egingo dugu sistema ezberdinetan diharduten hurrenkera sistemikoak (Bert Hellinger) ezagutzetik, Maitasunaren Ordenak, eta gure egunerokoan, eskola komunitatean zein bizitzan ditugun ardurak onartu eta ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzen dituen jardunean sakontzeraino.

Norentzat

Hezkuntza komunitatean diharduten profesionalentzat, ikasleekin eta haur zein gazteekin harremanetan dagoenarentzat, gurasoentzat eta ikuspegi sistemikoan interesa duen pertsona orentzat.

Landuko diren gaiak

- Pedagogia Sistemikoaren oinarriko kontzeptuak.
- Sistema motak. Familia eta eskolak ikuspegi sistemikotik.
- Familia eta Eskolaren arteko harremana: bi sistemen arteko elkarlanaren oinarriak.
- Bert Hellingeren hurrenkera sistemikoak: Maitasunaren Ordenak (kidetza, hierarkia eta oreka).
- Autoritatea izan ikasgelan: dagozkidan ardurak onartu eta ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzetik.

Metodologia

Edukiak garatzeko azalpenak modu teorikoan zein praktikoan egingo ditugu, teoriaren garapenerako proposatuko ditugun praktikak eta mugimenduak izango dira ardatza. Bizipenetan oinarritutako praktketan baliabide ezberdinak erabiliko ditugu. Ariketa konkretuak banaka, talde txikitan eta talde osoan egingo ditugu.

Ikastaroak izaera **teoriko-praktikoa** izango du, parte-hartzailea.

***Aitziber ESNAOLA ARRIBILLAGA.** Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU), Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku-hartze sistemikoan espezializatua.

***Larraitz MENDIZABAL HUITZI.** Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakaslea (EHU), Psikoterapeuta ikastaroa Gestalt eta psikologia humanistikoa, UNEDen Acouturierren psikomotrizitatean formatua, Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku-hartze sistemikoan espezializatua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Adimen Anizkunek ikaskuntzan duten garrantzia

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikastaro honetan, **Howard Gardner**ren “Adimen Anitzak” teoriari helduko diogu, eta hezkuntza-paradigma aldatzearen beharraz jabetuko gara. Pertsona orok, gutxienez 8 adimen mota ditugula jakitearekin batera, alde batetik, gure autoestimuari bultzada bat emango diogu, denok baikara argiak edo trebeak zerbaitetan, eta bestetik, konturatuko gara, era desberdinetan landu eta hobetu ditzakegula zailtasun gehiago aurki ditzakegun arloak. Beraz, norberaren adimen nabarmenenak ezagutzeko aukera izango dugu ikastaro honetan, eta honi ahalik eta etekin handiena aterako diogu beharrezkoak diren baliabide edo estrategiak ezagutuz. Hemen ikasiko duguna ikasleekin aurrera eramaten badugu, ikasleen motibazioan eragin positiboa izan dezakegula ikusiko dugu.

Norentzat

Hezkuntzan lan egiten duen edonorentzat, hezkuntzan lan egin nahi dutenentzat eta baita teoria hau sakonago ezagutu nahi duten guztientzat ere.

Gaiak

Adimena. Adimen Anizkunak. IKT baliabideak. Ebaluazioa.

Metodologia

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da. Alderdi teorikoa egonen da baina batez ere praktikoa izanen da. Adimen Anizkun bakoitza ezagutzeaz gain, baliabide eta herramienta berritzaileak ikasi eta ezagutzeko aukera izango dugu, ikasleekin gure egunerokoa erabili ahal izateko.

* **Edurne ETXEBERRIA TELLETXE**A. Lehen hezkuntzan irakaslea. IMP eskolan formatua, Rey Juan Carlos Unibertsitateik “Coach Personal y Educativo con Inteligencia Emocional y PNL”. Camilo José Cela Unibertsitatean formatua “Especialista en Inteligencias Múltiples y Aprendizaje Cooperativo”.

* *KOPURU MUGATUA* *

Mindfulness-a (Arreta Osoa) eta gogo-aldartearen kudeaketa hezkuntzan

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Gaur egun gure hezkuntza sisteman irakasleen estres mailak oso altua izaten jarraitzen du. Irakasleei gero eta eskari handiagoak eta anitzagoak egiten zaizkie, egoerak ere azkar aldatzen dira eta egokitzea eskatzen zaie. Horregatik irakasleek beren lan esparruko eguneroko erronkak kudeatzen lagunduko dieten tresnak behar dituzte. Oinarri zientifiko sendoa duen mindfulness-a gakoa izan daiteke laneko eta erkidegoaren ongizatea sustatzeko tresna gisa.

Norentzat

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.

Helburuak

- Arreta Osoan oinarrituriko teknikak ikasi eta praktikatzeara.
- Arreta Osoaren esparruan psikologiak eta neurozientziak egindako aurrerapenak eskolarekin eta ikasgelako kudeaketarekin lotzea.
- Gure burua hobeto tratatzen ikastea, Arreta Osoko tresnen bidez.

Edukia

- Mindfulness-a, irakasleen gogo-aldartearen autokudeaketarako.
- Mindfulness-a, ikasgela egoki kudeatzeko.
- Mindfulness-a, ikastetxeko pertsonen arteko harremanak egoki kudeatzeko.

Metodologia

Metodologia **teoriko-praktikoa** izanen da. Mindfulness-a hezkuntzan ardatz izanen duen oinarri teorikoa eta ezarritako helburuak eta edukiak lortzen lagunduko duten praktikak uztartuko dira. Gainera, irakasleen estresari buruzko kasuak aztertuko dira eta azalduko da estres hori mindfulness-aren bidez nola kudeatu.

* **David ALBEAR.** Euskal Herriko Unibertsitateko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Departamentuko irakaslea eta ikerlaria da eta 12 urte daramatza psikologiaren profesional gisa BARAKA Psikologia Integraleko Institutuan. Hainbat ikastaro formakuntza eman ditu. 2016ko urtarrilean Mindfulnessari buruzko tesia irakurri zuen: "Mindfulness, auto-compasión y estrés docente en el profesorado de Educación Secundaria".

* **Pello URKIDI.** Donostiako Irakasle Eskolako irakaslea da, Mindfulness-ean formatua eta praktikatzailea.

* **KOPURU MUGATUA** *

Jendurrean hitz egiteko teknikak

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Gaur egungo lan harremanetan, jendurrean hitz egitea, gure balorazioak, iritziak edota proiektuak eta egitasmoak... lankide edota hartzaileekin (beste irakasle/guraso...) partekatzea, eguneroko hitzordu bilakatu da.

Ezinbestekoa den lan molde honetarako ez gaituzte prestatu, baina baliabide batzuk eskuraturuta, egoera horiek arrakastatsuak izan daitezke.

Norentzat

Komunikazio, Hezkuntza eta Kultur arloko profesionalentzat.

Gaiak

Jendurrean komunikatzean askotan ez dugu edukia modu egoki eta erakargarrian partekatzea lortzen. Hainbat ariketa praktikatu, eta oinarrizko hainbat ezagutzarekin, helburu hori erraz lortu daiteke.

Izaera

Esperientziak erakutsia du gorputzak, ahotsak... emozioak... memoria dutela!

Eta buruarekin (bakarrik) ikasi beharrean, are eta sakonagoa dela ikasketa modu praktikoan egitea.

Metodologia

Antzerkian eta ikus-entzunekeo lan eta ikasketetan jasotako hainbat ezagutza baliatuko ditugu:

- Gorputz-presentzia, ahotsa, testu eta edukiak trebatuz.
- Norberaren jarreraz jabetu eta hainbat ariketen bidez, aldatu edota gure ezaugarrien baliabideak landuz.
- Taldekideen partaidetza sustatuz, pertsona banakakoari behar duena helaraziz.

* Olatz BEOBIDE. Aktorea eta zuzendaria.

* *KOPURU MUGATUA* *

Aho bete amets: haur literaturaren ahozko baliabideak (0-6 urte)

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Haur Literaturaren ahozko baliabideak landuko ditugu, tailer gisa, modu praktikoan. Haur-poesia eta album ilustratuak ahozko jardunera ekartzeko moduak frogatuko ditugu. Errezitatu melodia-tsua, kantua, gorputz-adierazpena edota dramatizazioa erabiliko ditugu, partaideen artean emozio, estetika eta zentzuen bidezko giroa bultzatuz.

Norentzat

0-6 urteko haurren guraso, irakasle, irakasle-gai, hezitzaile, zaintzaile eta bitartekariarentzat. Haur Literatura gustuko duen edonorentzat.

Edukiak

0-2 urte. Ezaugarriak. Haur hiztegia osatzen. Hitzen musika, kolorea, gustua, usaina eta ukitua. Errezitatu melodiatsuak sortzen: kulunka, ibilian, jantzen, erantzen, jaten, aldatzen, magalean, aulkian, autoan... Zer egin hamar olerkirekin? Zer egin hamar libururekin? Begirada, gorputza, objektuak eta ahotsa.

2-4 urte. Ezaugarriak. Haur hiztegia osatzen. Hitzen musika, kolorea, gustua, usaina eta ukitua. Errima eta erritmoa. Errepikapenak. Hitzak eta emozioak. Egunerokotasunaren poetika. Zer egin hamar olerkirekin? Zer egin hamar libururekin? Bat-batekoak sortzen. Lehen dramatizazioak. Begirada, gorputza, objektuak eta ahotsa.

4-6 urte. Ezaugarriak. Haur hiztegia osatzen. Hitzen musika, kolorea, gustua, usaina eta ukitua. Errima eta erritmoa. Errepikapenak. Hitzak eta emozioak. Egunerokotasunaren poetika. Dramatizazio-jokoak. Pertsonaiak, ahotsak, gorpuzkerak, erregistroak eta ikuspegiak. Zer egin hamar olerkirekin? Zer egin hamar libururekin? Objektuen erabilpen anitza. Zer da, zer izan daiteke? Bat-batekoak sortzen. Liburutik antzerkira.

* Yolanda **ARRIETA MALAXETXEBARRIA**. Idazlea eta literatura dinamizatzailea. (www.nitikgura.eus)

* *KOPURU MUGATUA* *

Pentsamendu autonomoa eta sortzailea komunikazio enpatikoan

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ume eta gazteek, beraien pentsamendu autonomoa eta sortzailea modu esanguratsuan eraiki ahal dezaten espazioak sortu eta eskaini behar dira. Talde-elkarrizketa eta komunikazio enpatikoaren metodologiaren bidez. Orainean eta etorkizunean modu arduratsuan sentitzen, pentsatzen eta elkarlanean erabakiak hartzen duten pertsonak eta herritarrak izateko.

Norentzat

Haur eta gazteekin lan egiten dutenentzako eta elkarrizketaren izaera holistikoan interesa dutenentzako.

Helburuak

1. Taldean besteekin pentsatzeko, komunikatzeko, ikertzeko eta sentitzeko aukerak ematea, espazio eta kontestu egokiak sortuz.
2. Ume eta gazteen pentsamendu dimentsio anizdunaren garapena ulertzeko giltzarriak eskaintzea, tresna praktikoak, gogoetatsuak eta sortzaileak erabiliz.

Edukia

- Zer da elkarrizketa?
- Nola sortu elkarrizketarako testuinguru egokiak? Ze baliabide daude?
- Bakarrik edo besteekin pentsatzen dugu hobeto?
- Nola sentitzen gara besteen ikuspuntu ezberdinen aurrean?
- Zer esan nahi du “entzuteak”?
- Zer da Galderaren pedagogia?
- Ze komunikazio- eta elkarrekintza-mota sortu nahi dugu gizakion artean? Eta gure ingurune hurbilean?
- Zer dira pentsamendu trebetasunak?

Metodologia

1. Metodologia parte-hartzaile eta dinamikoa: jarduera praktikoak, ludikoak eta sortzaileak.
 2. Elkarrizketa eta gogoeta komunitatea.
 3. Fundamentazio teorikoa.
- Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* Miren CAMISON GOIENETXEA. Haur Filosofiako irakaslea, filosofian lizentziatua, haur hezkuntzan diplomatua.

* *KOPURU MUGATUA* *

GARAPEN PERTSONALA IRAKASLEENTZAT

Haur eta gazteen ahalduntze prozesuan bidelagun

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.

9:00 - 14:00

Ikaste-irakaste prozesuak adimenetik abiatzen dira orokorrean. Ikastaro honetan bizipenean oinarritutako esperientzia bat jasotzeaz gain, geure burua hobeto ezagutu eta bizitzako hainbat egoera gatazkatsuri aurre egin ahal izateko baliagarriak izango zaizkigun tresna praktikoak berreskuratuko ditugu. Norberarengan baitaude hazkuntza, garapen eta eraldaketa pertsonalerako gako nagusiak. Eta, ondorioz, haur eta gazteen ahalduntze-prozesurako baliagarriak izango diren dinamika ugari ere ezagutuko ditugu.

Norentzat

Irakasle, hezitzaile edota bere garapen pertsonala landu nahi duen edonorentzat.

Helburuak

- Ahalduntze-prozesuan norbere burua hobeto ezagutzeko barne baliabideak berreskuratzea
- Lanketa pertsonalaren bitartez, jardun profesionalen txertatu ahal diren tresna praktikoak eskuratzea.

Metodologia

Ikastaro **teoriko-praktikoa**; gorputz psikoterapiako dinamiketan oinarritua. Ikasitakoa buruan bakarrik izan ordez gorputzean ere integratua eramateko. Horrez gain, biodantza, arnasketak, barne hausnarketak, etab. egingo dira.

* Elen KORTAXARENA GESALAGA. Biodantza irakaslea eta HUHEZI (Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza) fakultateko irakasle kolaboratzailea. Gorputz psikoterapia ikasketak burutzen.

* Jokin BERISTAIN LOPEZ DE ZUBIRIA. Titulazioz ingeniaria (M.U.). Gorputz eta emozioetan espezializaturiko psikoterapeuta. EHUko irakasle kolaboratzailea, Ingeniaritza fakultatean.

** KOPURU MUGATUA **

Nola saihestu eta kudeatu eguneroko gatazkak

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Jaso logela! Itzali telebista! Mugitu, berandu goaz!

Utzi aldamenekoarekin hitz egiteari! Ixo eta basi lanean! Laguna ez da jotzen! Niri ez hitz egin tonu horretan!
Sarritan, guraso eta hezitzaileak gauza bera 100 aldiz esaten dugun inpresioa izaten dugu, tonu guztietan, kasu egin baino lehen.

Aldi berean, zailtasunak izan ditzakegu gauza bat debekatzeko orduan, exijitzeko orduan... "Ez" esatea kostatzen zaigu edota gehiegi esaten dugu.

Zailtasun asko ditugu autoritarismoaren, xantaia eta penaren artean oreka edo erdiko neurria aurkitzen. Eta sarritan gaizki ulertuak sortzen dira...

Igeri egiten, gidatzen, sukaldatzen ikastea normalizatzen dugu... Gure autoritatea mantendu, autoritarrak izan gabe. Gure seme-alabekin komunikatzen ere ikas daitezke!

Nola hitz egin gure ikasle/seme-alabek entzun diezaguten...

Nola entzun hitz egin dezaten...

Norentzat

Guraso, hezitzaile edo interesa duen edonorentzat.

Helburuak

- Gure hitz egiteko moduan eta horrek dituen ondorioetan erreparatu.
- Marshall Rosemberg-en "Komunikazio Ez Bortitzaren" modeloa aurkeztu.
- Zigor, xantaia eta mehatxuen alternatibak azaldu.
- Trebatu ohiko egoeratan.

Edukia

- Gatazka egotea ahalbidetzeko zer egiten dugu?
- Jokaera desegokiaren aurrean, zer? Haurrak nola ikasiko du? Zer daukagu ikasteko eta aldatzeko?
- Nola jarri mugak mehatxu, zigor eta xantaiarik gabe?
- Nola jaso haurraren amorrua? Haurraren osasun emozionala nola zaindu?
- Guraso eta hezitzaileen amorrua. Gure ezintasuna eta amorrua benetako indar eta potentzian eraldatzeko erabili dezakegu.
- Haurraren eskaera eta beharrei erantzunez ez ote dugu gehiegi babestuko? Nola lagundu bere autonomian?

Metodologia

Teoria aurkeztu ondoren ariketa praktikoaren bidez, guraso eta hezitzaileek eguneroko egoerak aztertu eta sakondu al izango dituzte.

* **Nerea MENDIZABAL.** Psikopedagogo, haur masajeko hezitzailea eta komunikazioan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Arin doa mundua, eta hala dabilta gure buruak ere sarritan: pentsamenduz beteak, joan etorri etengabe batean.

Gaur egun arreta mantentzea gero eta zailago bihurtzen ari den zerbait da teknologia berrien erabilaren ondorio moduan.

Baina arreta landu daitekeen zerbait da.

Arreta adimenaren muskulua dela dio Daniel Golemanek, Hezkuntza Emozionala ezagutzera eman zuen autoreak. Beraz, gorputzeko edozein muskulu entrenatu dezakegun bezalaxe, gure adimen muskulu hori ere garatu dezakegu eta, noski, onura ugari ekarriko dizkigu gure egunerokotasunera: kontzentratzea errazagoa izango da, lasaiago biziko gara, geure barne mundua eta emozioak hobeto kudeatuko ditugu.

Arreta ordenagailuan erabiltzen dugun “sagua”ren moduan ulertu dezakegu. Guk “sagua”ren kontrola daukagunean, noranahi mugitu gaitezke pantailan zehar. Aukeratu dezakegu zer ikusi nahi dugun edo nora jo ordenagailuaren baitan.

Arreta antzeko zerbait da. Gure arreta lantzea giltza bat da atea irekitzeko: norberaren barne kontrola, besteekiko enpatia eta bizitzaren konplexutasunean barneratzeko.

Norentzat

Irakasleentzako zuzendua dago bereziki. Norberagan arreta garatzen ikastea da ardatza, ondoren ikasleekin lantzeko.

Helburuak

- Arreta, kontzentrazioa eta orainean bizitzeko gaitasuna landu.
- Erlaxatzen eta meditatzen ikasi.
- Norberaren izatearen maila ezberdinak ezagutu: gorputza, adimena, emozioak eta egitearen arteko harremana kudeatu.
- Barne lekukoa indartu eta landu.

Metodologia

Gorputzean eta arnasean oinarritzen diren ariketa sortzaileak eta praktikoak erabiliko ditugu arreta garatzeko. Gorputz Adierazpena, Yoga eta Mindfulness (Arreta Osoa) teknikak sakonduko ditugu.

* **Naiara GORROÑO VITERI.** Komunikazio Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Pedagogian Masterduna Bartzelonako Unibertsitatean. Yoga irakaslea. Mindfulness bideratzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Alexander teknika

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Alexander teknikaren bitartez erantzun automatizatuak alde batera uzten ditugu eta kontrol primarioa (burua, lepoa eta bizkarraren arteko erlazio dinamikoa) modu egokiago batean erabili dezakegu.

Norentzat

Irakasle, ikasle eta kontrol kontzientea landu nahi duten pertsonentzat da egokia.

Landuko dena

Gizakiaren Funtzionamendu eta Erabileraren arteko erlazioaren inguruan izango da, eta metodologia praktikoa izango du bakoitzak bere erabilerarekiko antzeman dezan zein ohitura inkontziente dituen, eta nola berreskuratu dezakegun jaiotzetik izandako erabilera ona, libre mugitzeko, artikulazioak aske mantentzeko eta tentsioak kontrolatu ahal izateko. Arnasa, urduritasuna, ahotsaren kontrola ikaskuntzan, etab, landuko ditugu ikastaroan.

* **Anne LANDA.** Musika (akordeoi klasikoa) Donostiako Kontserbatorioan ikasi du eta graduatu-ondokoa Grenobleko Kontserbatorio Nazionalan (Frantzia). Ondoren, Alexander Teknikako irakasle titulua Amsterdam-go Alexander Techniek Centrum-en jaso zuen (1997-2001).

* *KOPURU MUGATUA* *

Haurrei ipuinak kontatzen trebatzeko ikastaroa

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ipuinak kontatzeko dauden moduak aztertuko ditugu: dela sostenguekin (liburuak, objektuak, musika tresnak . . .), dela sostengurik gabe; bide batez, elkar entzuteko espazioa zainduko dugu, haurren arreta hobeto mantendu dezagun, hots, zentramena; eta, oroz gainetik, enfatizatu dugu ipuinen alderdi organikoa. Izan ere, geletako eguneroko jardunean, ipuinak gehiegi erabiltzen ditugu objektu gisa, instrumentu gisa; eta askoz gutxiago elkar hunkitzeko, harritzeko, liluratzeko eta lotura afektiboak sortzeko.

Norentzat

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan dabiltzan hezitzaileentzat, batik bat; baina baita ipuinak kontatzeko interesa duenarentzat.

Landuko diren gaiak

- Kontakizunak sailkatu.
- Kontatzeko hainbat modu ezagutu.
- Kontatzeko estrategiak gureganatu:
 - Irudiaren eta hitzaren arteko harremana.
 - Kontaketaren erritmoa.
 - Testu egokitzapena: ahozkoa hurbiltzeko estrategiak.
 - Gorputzari dagozkionak: ahotsa, keinuak, imintzioak, begirada . . .
 - Jarrerari dagozkionak: konfiantza, presentzia, sinesgarritasuna . . .
- Haurrengan **ARRETA** mantentzeko estrategiak landu:
 - Erlaxazioa / Kontzentrazioa / Inprobisazioa / Entzuketa kontzientea.
- **Elkar entzuteko espazioa zaindu, egoera erritual desberdinak erabiliz.**

Metodologia

Hausnarketa teorikoaz gain, jarduera praktikoak eskainiko dira.

** Obarra: gomendatzen da parte-hartzaile bakoitzak ekartzea ipuin batzuk (kontatzen erabiliak izan badira, hobeto) / Esterila (lurrean etzateko) / Arropa eroso.*

* Pello AÑORGA. Ipuin kontalaria, idazlea eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea.

** KOPURU MUGATUA **

LETRA AZKARRAK TESTUEN GILTZARRI

Idazketaren neurogarapeneko eredia

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Nazioartean badago hastapeneko eta garapeneko idazketa modu berritzaile batean irakasten/esku-hartzen lagundu ahal digun eredu bat: idazketaren neurogarapeneko eredia. Eredu horretan oinarrituz, minutuko letra-kopuru azkarra duen ikasleak hitz-kopuru handiko eta kalitatatezko testuak idatzi ditu. Euskaraz ere frogatua gelditu da hori (Ibarra, 2016, tesia). Badirudi aurkikuntza honen gakoa lan-oroimenean dagoela: zenbat eta letrak esfortzu txikiagoarekin egin, burua libreago dago testua sortzeko.

Ikastaro honetan, gure eskoletako 552 hurrek Lehen Hezkuntzako 2. 4. eta 6. mailetan idatzi dituzten batazbestekoak aurkeztuko dira. Horrez gain, idazketa modu berritzaile batean irakasteko estrategiak proposatuko dira eta zailtasunak daudenerako esku-hartze eraginkorrak azalduko dira.

* **Irene IBARRA LIZUNDIA.** EHUko irakasle doktorea.

* **Arantza MARTINEZ ETXARRI.** Lizardi BHIko irakasle doktorea.

** KOPURU MUGATUA **

Entrenamendu mentalaz eta ametsak aztertuz, zoriontsu!

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Produkzioa gero eta gehiago baloratzen den gizarte honetan, gizakion benetako osotasunaren prestakuntzan dauzkagun hutsuneak nabarmentzen dira: konfiantza falta, beldurrak, muga estuak, noraeza, pertzepzio ez zuzenak, gure buruarekiko eta inguruarekiko sinesmen ez zuzenak, etab.

Entrenamendu mentaletik eta ametsak ematen diguten informazioarekin barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, helburuak argitu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratuko ditu, bizitza-kalitatea ikaragarri hobetuz eta ingurukoei hobetzen lagunduz. Ah! eta bizipozez gaitzeka, gehiago eta hobeto produzituz.

Norentzat

Pertsonaren garapenari zuzendutako ikastaroa izanik, irakasle, guraso zein bestelako profesionalak parte har dezakete.

Helburuak

- Psikologia Positiboa, PNL, Sofrologia, Kontrol Mentala, Ho' oponopono, Berez dena maitatu, Erabateko Barkamena, Mindfulness eta beste hainbat barru-lanketa tresnen eraginkortasuna bizi.
- Ametsak ulertu eta lantzen ikasi (Gestalt, Gayne Delaney, etab).
- Gaeuz zein egunez, norbere baliabideen ezagutza hobetu, zoriontsuak izateko erabili eta emozionalki garatzeko tresnak landu.
- Zoriona erabaki bat dela ohartu, gakoa gure adimena gure zerbitzura jartzean dagoela praktikatuaz.

Edukiak

- Meditatzeko egoera nola lortu.
- Indarberritzeko ariketa (edozein egoeratan gure burua indartzeko).
- Norbere baliabideen ezagutza errazteko tresnak.
- Norbere helburuak lortzea errazteko tresnak.
- Norbere buruan sinistu eta konfiantza lantzeko tresnak.
- Jendaurrean gustura moldatzeko tresnak (kontzertuak, hitzaldiak, bilerak, azterketak, proiektu aurkezpenak, oposizioak, etab.)
- Maite ditugun pertsonak beste era batera laguntzeko tresnak.
- Egunerokotasunean gertatzen diren gatazkak baretu eta konpontzeko tresnak.
- Errendimendu intelektualak hobetzeko tresnak (memoria, kontzentrazioa, etab.).
- Errendimendu fisikoa hobetzeko tresnak.
- Ametsak guretzako daukaten informazio zuzena bizi eta ulertzeko tresnak.
- Bizitza hobetzen laguntzeko ametsen aukera.
- Guregan eragiten duten bestelako eraginak kudeatzeko tresnak.

Metodologia

Ariketak eta kontzeptuak praktikatu eta barneratu ondoren, sortzen diren galderak erantzungo dira. Zenbaitzutan, ariketa praktikatu ondoren azalduko da. Beste batzuetan azaldu ondoren praktikatu da. Ikastaroa erabat partehartzailerak da. Ikastaroaren helburu nagusia, eskainitako informazioaren onura, praktikak ekarriko digula ohartzea da.

* Urko AROZENA. Musikeneko irakaslea. Psikologia Positiboan, Kontrol Mentalean aditua.

GURE ESKOLAK MILA KOLORE DITUELAKO

Ongi Etorri eskolara!

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikastaroa hau, geletan kulturantzatasuna landu eta pedagogia kultur anitzaren bidez, eskuhartzeak egiteko helburuarekin aurkezten dugu.

- Gure eskoletako errealitate kulturantza aztertuko dugu, hainbat estereotipo deseraikiz.
- Bestearen ezagutza eta onartzetik, asertibitatea oinarri hartuta, dibertsitate kulturala lantzeko tresnak ikusiko ditugu.
- Gure eskoletako kulturantzatasuna altxorra bihurtu dezakegu, eta kanpotik etorritako familiek hasieran dituzten desabantailak landu, euskararekiko gertutasuna irabaziz.
- Eskola elkarbizitzarako gune naturala denez, euskara eta Euskal Herriko kulturarekiko ezagutza eta bizipenerako, motibazio kanala pizteko erabiliko dugu era praktikoan.

Norentzat

Irakasle, talde pedagogikoetako kide, teknikari, guraso elkarteetako kide eta hezitzaile-entzat.

Gaiak

- Estereotipoak deseraikiz, nola ikusten ditugu “beste horiek”.
- Zer dago ondo? Zer dago gaizki?
- Kulturantzatasunaren Izeberra.
- Gure geletako egituraketa berria. Nola bihurtu “desabantaila” “abantaila”?
- Eskuhartze estrategiak “ONGI ETORRI ESKOLARA” proiektuaren esperientziarekin.

Metodologia

Metodologia parte-hartzailea izango da. Hausnarketarako ikus-entzunezko baliabideak, banakako eta talde dinamikak erabiliko ditugu, eta, “familia laguna” esperientzian parte hartu duten beste kulturetako pertsonen testigantzak ezagutuko ditugu, euskararen eza-egutza eta erabileraren emaitzak herrialde desberdinetako familien baitan.

* Lola BOLUDA. Soziologa eta Gizarte Langilea. (ONGI ETORRI ESKOLARA).

* Dorleta MIKEO. Gizarte Hezitzailea. (ONGI ETORRI ESKOLARA).

* Nerea REDONDO OTAMENDI. Soziologoa eta Formakuntza Trebatzailea.

ANTZERKI TEKNIKAK:

hezkuntzarako tresna pedagogikoa

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikastaro honen helburua antzerkiak eskaintzen dizkigun tekniketan entrenatzea da, gero hauek ikasleekin tresna pedagogiko moduan erabili ahal izateko. Antzerkia edozein ikasgaitan erabili daitekeen metodologia berritzaile eta sortzaile baliogarria izan daiteke.

Norentzat

Hezkuntzan lan egiten duten profesionalentzat eta interesa duen edonorentzat.

Gaiak

- **Antzerki arloan:** beroketa jolasak, gorputz adierazpena, Antzerki Imajina, inprobisazioak, Irakasle-rolan, antzerki sormena (hainbat estimulu erabiliz: egunkariak, ipuinak, margoak, argazkiak ...), Antzerki Foruma.
- **Trebetasunak arlo pertsonalean eta sozialean:** autokontzeptua, enpatia, emozioak, gatazken konponbidea.

Metodologia

Esperientzian eta ekintzan oinarritzen den metodologia oso dinamikoa erabiliko da. Talde osoan, talde txikitan edo banaka, landuko ditugu gai ezberdinak. Testuinguru babestu eta konfiantzazkoa eskainiko da, bakoitzaren erritmoa errespetatua izan dadin. Prozesua ondo ulertzeko, dinamizatzaileak behar diren azalpenak emango ditu, eta talde hausnarketari bere garrantzizko lekua emango zaio.

Izaera

Praktikoa.

***Esther URÍA.** Aktorea eta Psikopedagogo. Momentu honetan Unibertsitatean Antzerkiaren eta Elkarbizitzaren inguruan ikerketa bat garatzen ari da.

* **KOPURU MUGATUA** *

Txotxongilo eta ipuinen mundu magikoa

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Eskukoa, hatzamarretakoa edo makil batekin, azkenean, txotxongilo bat egin ondoren bizitza berri bat ematen diogu gure beldurrak, ametsak eta sentimenduak kanporatzeko eta istorio berriak sortzeko.

Beldurrezkoak zein barregarriak, herrikoiak edo asmatutakoak, mota guztietako ipuin eta istorioak kontatzeko keinuak, soinuak, panpinak eta antzekoak erabiltzen ditugu horiek kontatzeko.

Lotura hau ikusita, bi osagarri nagusi hauek, txotxongiloak eta ipuinak, koloretako hariz elkarrekin uztartu, eztarria garbitu eta emaitza zoragarri bat lortzen saiatuko gara.

Norentzat

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat bereziki, baita adin horretako umeekin ari diren begirale zein gurasoentzat ere.

Helburuak

- Ondo pasatu eta sormena landu.
- Birziklatzearen garrantziaz ohartu.
- Plastika teknika desberdinak ezagutu.
- Esperientziak elkarbanatu.
- Ipuinak kontatzeko trebatze bidean beste urrats bat ematea, praktikatu.
- Ahozko komunikaziorako baliabideak ezagutzea eta praktikatzea: hitzak eta hizkuntz baliabideak, alde batetik, eta, bestetik, arnasa, ahotsa, begirada eta gorputz adierazpena.

Metodologia

Tailer honetako metodologia guztiz dinamikoa eta praktikoa izango da. Txotxongiloak egin ondoren ipuin desberdinak antzetzu, eta alderantziz, ipuin edo istorio bat landu eta horren ostean agertzen diren pertsonaiak sortuko ditugu hainbat material erabiliz.

***Alazne UGARTETXEA**. Haur Hezkuntzako irakaslea eta umeentzako tailerretan aditua.

***Ixabel MILLET**. Kontalaria, idazlea, formatzailea eta Hendaiaiko Bi'Arte elkarteko zuzendaria.

Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Zoriontsu izaten ikasteko tresnak

Irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispersioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desegokiak eta abar presente baitaude.

Horrek guztiak irakasleen osasunean eragin dezake, estresak sistema immunologikoa makaltzen baitu gaitz fisiko eta psikologikoak sortzeko arriskua areagotuz (urduritasuna, lo egiteko arazoak, min muskularrak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa, etab.).

Helburuak

- Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu, energia harmonikoki mugitu, adimena lasaitu eta kontzentratzen ikasi.
- Arnasketak, nerbio sisteman eta emozioetan daukan eragin zuzenez jardun eta teknika horiek behar diren momentuetan erabiltzen ikasi.
- Adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak ikasi, horiek ikasleekin landu ahal izateko.

Edukiak

- Osasuna indartzeko bost puntuak.
- Zoriontasuna eta egoera horretara iristeko baliabideak.
- Arnasketa prozesua eta bere eragina emozioetan.
- Emozioak askatzeko teknikak. EFT.
- Sintesia: ikasleekin egiteko erlaxazio, atentzio- eta bisualizazio-ariketak.

Metodologia

Yogak izaera esperimentalak daukenez, tailerra hainbat teknika erabilgarriren esperientzian oinarrituta dago.

*Marina PINTOS MARTIKORENA. Pianojole, musika irakasle eta yoga irakaslea. Azken urteotan Hezkuntza Elkarteei egokitutako formakuntza-tailerrak zuzentzen ditu.

* *KOPURU MUGATUA* *

Espresio tailerra

“Sortuz sentitu - Sentituz sortu”

Uztailak 3, 4 eta 5. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Sortze-prozesua oinarritzat hartuta, emozio-ekin egingo da lan. Tailer praktikoa izango da. Pintura, zeramika, eskultura, gorputz espresioa, erlaxazioa... hainbat elementu uztartuko dira emozioak azaleratu eta bideratzen ikasteko.

Sortzea, artea, sendabide bat dela zioen Joseph Beuys artistak. Bere aburuz edonor izan daiteke artista. Sortze-prozesuan norbere barrenak hustu eta hein batez emozio edo bizipen horietatik askatzen baikara.



Jung-ek zioen moduan gizakiak sozializatzeko-prozesuan sozialki "zuzenak" edo "egokiak" ez diren norbere ezaugarri eta emozioak baztertzen ditu, inkontzientean gorde, pilatu. Egunerokoan ordea Jung-ek "itzala" zeritzon horrek nahigabe baldintzatu eta mugatu gaitzake. Emozio eta korapilo horiek azaleratzeak gertatzen zaigun horren kontziente egiten gaitu; modu horretan gure jokamoldearen zergatia azaleratu eta egoera horretan esku har dezakegu. Tailer honen helburua sormenaren laguntzaz parte hartzaileen emozio eta jokaeren kontzientzia hartzea eta norbere potentziala berreskuratzea da.

Ikastaro honetan pertsonalki sentitu, sumatu eta bizi izandakoa lanabes bilakatuko da haurrekin lan egiterakoan. Enpatiaz lan eginaz haurren emozioak, beharrak eta kezkek sortzearen bidez askatu eta bideratu ditzakegu. Hitzez espresatu ezin duten hori konturatu gabe irudikatu eta azaleratzen baita sortze-lan orotan.

***Jasone IRIGOIEN LOINAZ.** Sortzailea (pintura, eskultura, performance). Arte Ederretan lizentziatua. Ikasketa aurreratuetan diplomatua Irudia, Teknologia eta Kulturaren alorrean. Terapia alternatiboetan titulaturia (Reiki III, Kristaloterapia, Sanazio pranikoa). Pinturako Irakaslea. Espresio tailerren gidaria (haur eta helduak).

* **KOPURU MUGATUA** *

Kontzeptu Mapak hezkuntza xedeetarako:

Cmap Tool aplikazioa KMak digitalki erabiltzeko tailerra

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.

9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Kontzeptu Mapak (KM) zer diren jakiteko, nola egiten diren ikasteko eta irakaskuntzan zertarako erabili daitezkeen ezagutzeko ikastaro bat da hau; Teoriko-Praktikoa, hau da, oinarrizko ideiak eta filosofia jakinda, praktikara eramateko pentsatuta.

Norentzat

Lehen eta Bigarren Hezkuntzan jarduten duten irakasleentzat; baita ikasketak bukatu eta irakats-lanean aritu nahi dutenentzat.

Hala ere, teknologia digitaletan oinarrituriko estrategia didaktikoetan interesa duen edonori oso egoki eta interesgarri egin dakioke ikastaroa, Konpetentzia Digitala garatzen lagunduko diolako.

Landuko diren gaiak

1. *Cmap Tools* aplikazioarekin lan egiteko ezinbestekoak (bakarkako lana)
 - a. Aplikazioa nondik deskargatu eta nola instalatu.
 - b. Oinarrizko Kontzeptu Mapak nola egin: Kontzeptuak eta loturak. Tipografiak, koloreak eta estiloak. Argazkiak, dokumentuak eta bestelako errekurtsuak nola txertatu.
 - c. Kontzeptu mapen on-lineko publikaziorako prozesua.
 2. *Cmap Tools* aplikazioaren bidezko elkarlana: On-lineko ediziorako baimenak.
 - a. Kontzeptu Mapa editatzeko gonbiteak bidali eta onartzea.
 - b. Taldeka Kontzeptu Mapa berberaren edizioa.
 - c. *Cmap Cloud*.
 3. *Cmap Tools* aplikazioa ikasgelan.
 - Irakaslea protagonista: Edukiak aurkeztuz Kontzeptu Mapen bidez.
 - a. Ikaslea protagonista:
- Edukien sintesia. - Aplikazio jarduerak. - Proiektuen garapena.

Metodologia

Ikastaroa informatika-gelan garatzekoa da, nork bere ordenagailuarekin. Hala ere, lan kolaboratiboa lehentsiko da eta taldekako zeregin ugari planteatuko dira.

Tailerraren xedea aplikazio digital baten aurkezpen hutsetatik harantzago doa. Hala, planteatuko diren jardueren jomuga gogoeta didaktikoa suspertu eta baliabide hezigarri berriak proposatzean datza.

Parte hartzaileek konpetentzia digital oinarrizkoa izatea beharrezkoa da ikastaroaren edukiak ondo segitu ahal izateko.

Izaera

Ikastaro hau tailer teoriko-praktiko bat da. Ondorioz, hasiera-hasieratik lan praktikoa proposatzen da teknologiaren bidez. Taldeko lana eta elkarlana bultzatuko dira. Bukieran metakognizioa erretzuko da ideia nagusiak eta ondorio praktikoak laburbilduz.

* Josi SIERRA. Berritzegune Nagusiko IKT aholkularia.

* José Domingo Villarroel. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Gorputzetik sinbolizatzeko gaitasunetara (haur txikiaren pentsamenduaren bidea)

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Haurren garapenean funtsezkoa da ulertzea nola garatzen diren gaitasun sinbolikoak eta hauek zer-nolako lekua duten bere pertsonaren eboluzioan. Hitza, jolas sinbolikoa, marrazkia eta adierazpen plastikoak, eraikuntzak, ipuinak, letrak, zenbakiak...denak sinbolizatzeko gaitasunarekin lotuta daude. Baina sinbolizatzeko gaitasunak oso lotura handia du haurren osasunarekin eta komunikatzeko gaitasunekin ere. Sinbolizatzeko gaitasunen garrantziaz eta esanahiaz hausnarketa bat egingo dugu, gure hezitzaile lanean hobeto ulertzeko haurrek egiten dutena eta horren zentzua.

Norentzat

Haur Hezkuntzako Irakasleentzat (0-6).

Landuko diren gaiak

- **Alde bibentziala:** proposatutako gaiaren inguruan zenbait egoera bizitzeak gaitasun sinbolikoen bidea ulertzen laguntzea da.
- **Alde teorikoa:** zer den sinbolizatzea; nola agertzen diren gaitasun sinbolikoak haurren bizitzan; harremana, sinbolizatzea eta ikasketak.

Izaera

PRAKTIKOA (**goizez** bibentziala: zenbait egoera bizi gimnasioan eta lan horretatik abiatuz, **arratsaldez** teoria garatuko dugu).

* **Alvaro BEÑARAN ARANZABAL.** Psikomotrizista eta Pedagogo. Bergarako UNED-eko psikomotrizitate eskolako kidea eta ASEFOP-eko formatzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Portaera-arazoei hurbilketa bat. Nola ulertu, nola jokatu

**Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30**

Gaur egungo egoera deigarria izaten ari da eskolan zein haur eta nerabeen osasun mentaleko zentroetan, portaera arazoak agertzen dituzten haur eta nerabeen kopuruaren igoera dela eta. Antsietateak eta portaera-arazoak gora egin dute gure adin txikikoen artean. Irakasleek askotan ez dakite nola jokatu egoera horien aurrean, ez dakite nola ulertu edota zelan tratatu portaera-arazoa agertzen duen ikaslea. Irakasleek batzuetan haserrea sentitzen dute, beste batzuetan, aldiz, ezinegona eta ezintasuna. Ikasgelan klasea ematea gogorra egiten zaie portaera arazoak dituzten ikasleak egonez gero. Era berean, hauskorrak ikusten dituzte, ikusi baitute zenbait kasutan euren ikasleen etxeko egoera ez dela erraza. Ikastaro honen bitartez ikusiko dugu zeintzuk izango diren aintzat hartu beharreko irizpideak portaera normala eta ez normala aztertu eta ulertzeko orduan. Osasun- zein hezkuntza-arazo baten aurrean aurkitzen gara, psikologia klinikotik abiatuta jokabide-arazoei hurbilketa bat egingo diegu umezaroari eta nerabezaroari. Hau da, zeintzuk diren arazo, zailtasun eta nahaste garrantzitsuenak ikusiko dugu. Beste alde batetik, aztertuko dugu zer dagoen zailtasun eta nahaste horien oinarrian, zeintzuk izan diren gure tesuinguru hurbilenean eman diren aldaketarik nabarmenenak egoera horiek irten daitezzen errazteko. Era berean, ikusiko dugu zer gertatzen ari den gaur egun familian eta eskolan, sentsibilizatu eta ulertuko dugu. Modu praktikoa aztertuko da nola gure haur zein nerabeak mamu txiki edo handi batzuk bihurtzen diren. Bukatzeko, aurkeztuko da nola jokatu modu orokor batean eskolan ikasleekin, familiekin zein beste profesional batzuekin.

Norentzat

Lehen zein Bigarren Hezkuntzako irakasle, orientatzaile edota pedagogia terapeutikoan dihardutentzat.

Landuko diren gaiak

1. Zer da portaera normala? Zer ez da normala?
2. Jokabide arazoei hurbilketa umezaroan eta nerabezaroan.
3. Zer gertatzen ari da gaur egun familian eta eskolan. Sentsibilizatu eta ulertu.
4. Nola bihurtzen da umea/ikaslea mamu txiki batean.
5. Nola jokatu modu orokor batean klasean.
6. Ondorioak.

Metodologia

Metodologia teorikoa zein praktikoa uztartuko dira. Hau da, eduki teorikoen aurkezpena power point eta bideoaren bidez egingo da. Beste alde batetik, talde dinamikien bidez edukiak landuko dira eta bideoaren bidez egoera konkretuak analizatuko dira.

* Daniel MARAÑÓN VALBUENA. Psikologian doktorea, Psikologo Klinikoa, Familia eta Bikote Terapeuta, Osasun Mentalean eta Psikologia Terapietan Masterra. Irakaslea Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendu Sailean. Psikologia Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Pedagogia Sistemikoaren gaineko oinarriak

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Pedagogia Sistemikoaren oinarrizko kontzeptuak ezagutuko ditugu eta ariketa praktikoan bidez begirada sistemikoak ikasgelan bertan (baita gure familian, lantokian, lagun artean...) zer nolako aukerak eskaintzen dizkigun bizitzeko aukera izango dugu. Familia eta eskola komunitatearen arteko elkarlana izango dugu abiapuntu, eta ibilbide bat egingo dugu sistema ezberdinetan diharduten hurrenkera sistemikoak (Bert Hellinger) ezagutzetik, Maitasunaren Ordenak, eta gure egunerokoan, eskola-komunitatean zein bizitzan ditugun ardurak onartu eta ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzen dituen jardunean sakontzeraino.

Norentzat

Hezkuntza komunitatean diharduten profesionalentzat, ikasleekin eta haur zein gazteekin harremanetan dagoenarentzat, gurasoentzat eta ikuspegi sistemikoan interesa duen pertsona ororentzat.

Landuko diren gaiak

- Pedagogia Sistemikoaren oinarrizko kontzeptuak.
- Sistema motak. Familia eta eskolak ikuspegi sistemikotik.
- Familia eta Eskolaren arteko harremana: bi sistemen arteko elkarlanaren oinarriak.
- Bert Hellingerren hurrenkera sistemikoak: Maitasunaren Ordenak (kidetza, hierarkia eta oreka).
- Autoritatea izan ikasgelan: dagozkidan ardurak onartu eta ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzetik.

Metodologia

Edukiak garatzeko azalpenak modu teorikoan zein praktikoan egingo ditugu, teoriaren garapenerako proposatuko ditugun praktikak eta mugimenduak izango dira ardatza. Bizipenetan oinarritu-tako praktketan baliabide ezberdinak erabiliko ditugu. Ariketa konkretuak banaka, talde txikitan eta talde osoan egingo ditugu.

Ikastaroak izaera **teoriko-praktikoa** izango du, parte-hartzailea.

***Aitziber ESNAOLA ARRIBILLAGA.** Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU), Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua.

***Larraitz MENDIZABAL HUITZI.** Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakaslea (EHU), Psikoterapeuta ikastaroa Gestalt eta psikologia humanistikoan, UNEDen Acoturieren psikomotrizitatean formatua, Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku-hartze sistemikoan espezializatua.

* **KOPURU MUGATUA** *

Haurren autoestimua

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Pertsona bakoitzak dugun geure irudi edo estimua gizakion bizitzaren oinarria da, bizitzan egoteko eta izateko modu bat azaltzen du. Norberaren autokontzeptu honek ikasketa-prozesuan, erabakiak hartzeko garaian, norberarekin eta gainontzekoekin erlazionatzeko eta bizitzak aurkeztuko dizkigun egoera desberdinetan aurre egiterakoan eragin zuzena izango du.

Nola daki haur batek balioetsua dela? Haurren autoestimua ez da zerutik erortzen den edo genetikaz etortzen den zerbait. Guraso eta hezitzaileak, nahi edo ez nahi, erlazioan gauden momentutik, haurren autoestimua elikatzen goaz, modu baikor edo ezkorrean.

Beraiekin ditugun interakzioek eragin eta inpaktu zuzena badute, nola lagundu diezaiekegu beraiegan duten irudi eta estimua daukaten benetako balioarekin bat eginda egon nadin? Nola adierazten diot haur bati balioetsua, maitatua eta onartua dela?

Haur guztietan dagoen harribitxia aurkitu dezagun, jokaera egoki edo desegokiak baldintzatu gabe.

Norentzat

Guraso, hezitzaile edo interesa duen edonorentzat.

Helburuak

- Haurren autoestimua eraikuntzan dugun eraginaz ohartu
- Haur bakoitzean dagoen altxorra aurkitu
- Haurrek beraiegan konfiantza sustatzeko ideiak aurkeztu
- Haurren zailtasunetan bidelagun izateko lanabesak barneratu
- Zoriontasun eta ongizate emozionalerako giltzak garatu.

Edukia

- Nola erakitzen da autoestimua? Zerk lagundu edo oztopa dezake helduen partetik norbere irudiarekin gustura egotea?
- Zein da zure haurra/ikaslea? Altxorraren bila.
- Jokaera desatseginen aurrean, nola lagundu bere irudia zapuztu gabe?
- Jokaera atseginetan nola errekonozitu beregan dagoen balioa manipulazioan erori gabe?
- Nola lagundu bere buruarekin ziurtasun eta konfiantzarik agertzen ez duenari? Bere ikasketetan, bere harremanetan...
- Proposamen eta jarduerak autoestimua elikatzeko.

Metodologia

Teoria aurkeztu ondoren ariketa praktikoek bidez, guraso eta hezitzaileek kasu konkretuetan landu ahalko dute.

* Nerea MENDIZABAL. Psikopedagogo, haur masajeko hezitzailea eta komunikazioan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia II.

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Haurren garapen-prozesuan modu egokian laguntzeko eta lagun egiteko eskolaren nolokotasuna eta izaera errotik aldatu behar da. Eskolak ukan beharreko ezaugarriak sakonki aztertuko ditugu formazioan zehar, modu teorikoan eta bibentzialean. Haurren prozesuan oztopo baino bidelagun egoki izateak suposatzen duen aldaketa ez baita teorikoki bakarrik ikasten eta jakiten ahal den zerbait, oso garrantzitsu deritzogu helduaren hausnarketa prozesuari eta bere buruan arakatzeko gaitasunari. Horretan laguntzeko ariketak izanen dira hortaz teorikoagoak izanen diren saioen osagarri. Eskolak nolakoa behar lukeen atalean eskola baten sortze prozesuan kontuan hartu beharreko aldagaiak landuko ditugu banan banan, praktikotasun osoarekin.

Norentzat

Maisu-maistra eta irakasleentzat. Haur-hezitzaileentzat. Eskolatzeko adina duten haurren gurasoentzat, eta interesa duen edonorentzat.

Helburuak

- Haurren benetako beharretara egokitutako eskola baten nolokotasuna ezagutzea.
 - Helduen formazio-prozesuan hausnarketa bibentzialak duen garrantziaz ohartaraztea.
 - Ikastea bezain garrantzitsua da gure heziketaren ondorio diren baldintzamenduen des-ikastearen prozesua.
 - Eskola on batek ukan beharreko ezaugarriak sakontasunez eta praktikotasunez jakitea.
1. Pedagogia aktiboaren klabeak ezagutzea eta horietan sakontzea.
 2. Haurrekin kalitatearekin egoteko eta aritzeko trebatzea.

Edukiak

1. Erlazionatzeko moduak.
2. Mugak (limiteak) eta ondorioak.
3. Espazioak. Giroa. Materialak.
4. Etxea eta eskola.

* Ane ABLANEDO LARRION (koordinatzailea). Bigarren Hezkuntza eta unibertsitateko irakaslea Iruñean eta Baionan. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua.

* Ane OTXOTeko VAQUERO. GOIZTIRI eskola librean koordinatzaile eta bidelagun. Haur prebentzioan aditua.

* Ainhoa ITURBE TOLOSA. GOIZTIRI eskola librean bidelagun. Psikologoa. Terapia sistemikoan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Musikaren baliabide tekniko eta espresiboak

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Hezkuntza orokorrean ikaslearen garapen osoa lortzeko musikaren bizipena eta erabilera nahitaezko dira. Ikasleen entzumena, adierazpena eta sormena lantzeko egingo ditugun jarduera praktikoa eta desberdinetan gorputz, ahotsa, tresnak eta musika-lanak erabiliko ditugu giro musikalean. Musika bizi eta egingo dugu, musikaz blai geratzeko!

Norentzat

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat.

Landuko diren gaiak

- Soinuaren ezaugarri batzuk: erritmoa, altuera, intentsitatea, tinbrea.
- Erritmo askea eta erritmo neurtua. Konpas bitarra, hirutarra, lautarra.
- Mugimendua: Mobilizazioak, Koreografiak, Dantzak.
- Ahotsa: Ahots aparatua, Musika-Hizkuntza eta Kantak.
- Tresnak: Gorputza-perkusioa, Kotidiafonoak, "Boomwhackers"ak, Perkusio txikia eta Plakadunak.
- Entzunaldiak eta musikogramak.

Metodologia

Metodologia praktikoa izango da egindako jarduerak ikasgelan aplikatu ahal izateko. Gorputza, ahotsa, tresnak eta musika-lan desberdinak izango dira baliabide. Jarduerak laburrak izango dira, bakarkakoak zein taldekakoak eta ikasleak parte-hartzaileak izango dira.

* **Ana URRUTIA RASINES.** Goi mailako musika irakaslea, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Donamartiriko Arberoa ikastola komunikazio ez-bortitza esperimentatzen

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Donamartirin (Nafarroa Beherean), 2008an ikastola sortu zenetik, begirunea proiektuaren oinarrian izan da, onginahia haurrentzat, baina ikastolan lan egiten duten helduentzat, burasoentzat, ikastolarat hurbiltzen diren guzientzat ere bai. Ongi-izaite nahi hori da gure haria, urratsez urrats eramaiten gaituena ikastera, esperimentatzera, saiatzera, egokitzen eta aldatzera, pertsonalki eta kolektiboki. Gure esperientzia azaldu eta partekatu nahi dugu, balio ukan dezan besteetan ere garatzeko.

Norentzat

Ikastaldia maila orotako irakasle, buraso, hezitzaile edo hezkuntzaz interesa duen edonorentzat eskainia da.

Landuko diren gaiak

K.E.B.aren (Komunikazio Ez Bortitzaren) oinarriak, arartekaritza, biltzar borobil berreraikitzaileak eta pedagogia hautuak, ikastolan erabili euskarri ezberdinak ere aurkeztuko dira (liburuak, sentimendu xokoa, beharren zuhaitza, sentimendu-ortzadarra,...).

Metodologia

Parte-hartzailea «ikasle» lekua ukanen du, eta ariketa praktikoen bidez, leku horretatik bere irakasle edo hezitzaile rola begiratzen ahalko du. Ekarpen teorikoa bereziki K.E.B.aren aurkezteko eginen da.

- * **Maialen ETXART SALABERRI.** Arberoa ikastola (Nafarroa Beherea).
- * **Arberoa ikastolako beste irakasle bat.**

** KOPURU MUGATUA **

ANTZERKI FORUMA: elkarbizitza lantzeko eremu demokratikoa

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Ikastaro honen helburua antzerki Forumak eskaintzen digun teknikan entrenatzea da. Antzerki Forum pieza batek konpondu gabeko egoerak aurkezten ditu antzerkiaren bidez. Aurkezpenaren ondoren, Ikuslegoa beste irtenbide batzuen esplorazioa edo azterketa egitera gonbidatzen da. Eremu partizipatibo eta demokratikoa den neurrian, elkarrekin beste ikuspuntu batzuk deskubritzeko aukera ematen digu Antzerki Forumak.

Norentzat

Irakasle, hezitzaile edo formatzaileentzat, eta baita interesa duen edonorentzat ere.

Landuko diren gaiak

- **Antzerki arloan:** Antzerkia parte hartzeko eremu demokratiko bezala. Zapalduon Antzerkia: Antzerki Foruma elkarbizitza sustatzeko tresna bezala.
- **Trebetasunak arlo pertsonalean eta sozialean:** Gatazken konponbidea, asertibitatea, enpatia, emozioak, autokontzeptua.

Metodologia

Prozesuaren ardatza Antzerki Forum pieza baten sormena izango da. Esperientzian eta ekintzan oinarritzen den metodologia oso dinamikoa erabiliko da. Hala ere, teoriari leku bat emango zaio (Antzerki Foruma ondo kokatzeko: Augusto Boalek sortutako Zapalduon Antzerkia) eta, honekin batera, partaideen hausnarketari bere garrantzizko lekua egingo zaio. Talde osoaren lana izango da sormen prozesu hau eta horretarako testuinguru babestu eta konfiantzazkoa eskainiko da, bakoitzaren erritmoa errespetatua izan dadin.

Izaera

Praktikoa eta teorikoa.

* **Esther URÍA.** Aktorea eta Psikopedagogo. Momentu honetan Unibertsitatean Antzerkiaren eta Elkarbizitzaren inguruan ikerketa bat garatzen ari da.

* *KOPURU MUGATUA* *

Gorputza irakaskuntza- prozesuan txertatzen

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Bizi dugun jendartearen pentsamenduaren garrantzia gailendu da, gorputzaren eta emozioen kontzientzia eta adierazpenaren gainera. Irakaskuntza-prozesuan ere kontzeptuak modu intelektualean eraikitzen ditugu eta, ondorioz, ez ditugu barneratzen geure baitan nahiko indarrarekin. Beraz, gorputz esperientziatik sortzen den ulermena berreskuratzea da proposamena eta mugimendua tresna pedagogiko moduan txertatzea. Gure eguneroko jardun profesional eta pertsonalean erabili ahal izango diren dinamika, ariketa eta bizipen praktikoak eskainiko dira.

Norentzat

Irakasle, hezitzaile, formatzaile eta bere buru-gorputzaren kontzientzia hartu nahi duen herritarrentzat.

Landuko diren gaiak

- Gogo-gorputzak irakaskuntza-prozesuetan.
- Egitasmo kurrikularra garatzen jarraitzeko, gorputz adierazpenetik eratortzen diren baliabideak.
- Autoestimua eta identitate propioaren errefortzua, hezitzaileen barne motibazioa.

Metodologia

Biodantza sistema bidelagun izango dugu eta mugimendua tresna pedagogiko. Horrez gain, arnasketak, irudikatzeak, mindfulness eta yoga ariketak ere landuko dira.

Izaera

Praktikoa eta teorikoa.

* Elen KORTAXARENA GESALAGA. Haur hezkuntzan graduatua. Biodantza irakaslea eta HUHEZI (Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza) fakultateko irakasle kolaboratzailea. Gorputz psikoterapian ikasketak egiten.

* Edur EPELDE PAGOLA. Psikologian lizentziatua. Feminismoan aditua. HUHEZI (Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza) fakultateko irakasle kolaboratzailea. Pedagogia sistemoan ikasketak egiten.

* *KOPURU MUGATUA* *

Psikoterapia eta gorputza hezkuntzan

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Psikoterapiako kontzeptuak irakasleen gaitasun pedagogikoak hobetzeko

Psikologia eta gorputz psikoterapiako kontzeptuak oinarritzat hartuaz lehendabizi norbere nortasunaren jatorria ulertuko dugu prozesu pertsonal batean. Eta ondoren, ikasleek izan ditzaketen nortasunetara pasako gara.

Pertsona bakoitza jaio garen kulturara eta maila intimoago baten jaio garen familia sistemara egokitzen gara. Egokitzapen-fase honetan gure izaera edo nortasuna sortu ohi dugu. Nortasun bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bere onura eta eragozpenekin. Hauek ulertzeak gure ikasleekin modu osasuntsuago eta efizienteago batean harremantzeko gaitasuna emango digu. Eta ez ikasle konfliktiboekin bakarrik baizik ikasle guztiekin.

Norentzat

Irakasle zein pertsonekin harremantzen den edozeinentzat dago zuzendua.

Izaera

Teoriko-praktikoa: Teoria modu kontzeptual batean emango da eta gorputz dinamikekin esperientziara eramango da teorian ikasi dena. Bi helbururekin:

- Ikasitakoa buruan bakarrik izan ordez gorputzean ere integratua eramatea.
- Erabiliko diren dinamika parte-hartzaileek beren ikasleekin praktikan jarri ahal izatea.

* Jokin BERISTAIN LOPEZ DE ZUBIRIA. Titulazioz Ingeniarria (MU) eta Gorputz eta Emozioetan espezializaturiko Psikoterapeuta (Biosintesia). Psikoterapeuta eta EHU-ko Irakasle kolaboratzailea, Ingenieritza fakultatean.

* *KOPURU MUGATUA* *

MINDFULYOGA “Adimena eta gorputza bat egiten”

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Ikastaro honetan Mindfulness eta Yoga zubi baten bi aldeak dira, leku jakin batera iristeko: geure barnera.

Zubiaren alde batean Mindfulness-a dago, gaur egun arretaren eta adimenaren inguruan egindako ikerketa berritzaileak ezagutzera eman dituen entrenamendu mentala; bestaldean aintzinatik datorenen Hatha Yogaren jakituria, gorputzean oinarritzen dena.

Mindfulness praktikak norberaren pentsamendu, sentsazio eta emozioetaz ohartzen irakasten digu orainean eta adiskidetasun jarrera batekin. Yogak berriz, gorputzean kokatzen du arreta.

Honela, Mindfulness eta Yoga uztartzen ditugunean entrenamendu osoa daukagu norberaren ongizatea lortzeko: Mindfulnessak adimena ezagutzen eta lasaitzen lagunduko digu eta Hatha Yogak gorputza luzatzen eta erlaxatzen.

Norentzat

Norberaren ezagutzan sakondu nahi duen orentzat. Arreta, burua eta gorputza gehiago ezagutu nahi dituen horrentzat.

Landuko diren gaiak

- Mindfulness meditazioaren oinarriak ikasi: norberarentzat eta ikasleekin, seme-ala-bekin erabiltzeko.
- Yogako ariketa praktikoak barneratu arnasa eta gorputza landuaz.
- Arreta, kontzentrazioa eta orainean bizitzeko gaitasuna landu.
- Adimena lasaitzen eta erlaxatzen ikasi.
- Gorputza sentitu eta ezagutu.
- Norberaren pentsamenduak kudeatzeko baliabideak ikasi.
- Emozio zailak kudeatzeko teknikak ezagutu.
- Egoera mental baikorrak lantzen dituzten praktikak: esker ona, adeitasuna, adiskidetasuna landu.

Metodologia

Praktika eta teoria tartekatuko ditugu. Mindfulness-aren inguruan egindako ikerketa zientifikoek emandako emaitzak ezagutuko ditugu, adimena, emozioak eta gorputzaren inguruko teoria berriak ezagutzuz; eta Mindfulness-meditazio praktikatan sakonduko dugu. Hatha Yogak gorputza sentitzera eramango gaitu eta bere filosofiaren oinarriak begiratuko ditugu.

* Naiara GORROÑO VITERI. Komunikazio Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Pedagogian Masterduna Bartzelonako Unibertsitatean. Yoga irakaslea. Mindfulness bideratzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Taldean zein bakarka, ni neroni

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Zenbatetan urduritu gara ideia bat azaltzerakoan, besteen aurrean defendatu beharra suertatu zaigunean? Zenbatetan egin diogu uko hitz egiterari, esan behar genuena ez zela ongi etorria izango sinestuta, taldea gure aurka dagoela bizitzera iristeraino? Zenbatetan egurtu dugu geure burua ustezko hanka-sartze baten aurrean? Eta...zenbat mugatzen dugu gure bizitzako garapena, besteei haiek guregandik espero duten hori eskaintzean, gure burua ukatuaz?

Norentzat

Pertsonaren garapenari zuzendutako ikastaroa izanik, irakasle, guraso zein bestelako profesionalek parte har dezakete. Nork bere burua zein ikasleak barrutik ezagutzen lagunduko duen ikastaro praktikoa duzu hau. Nork bere burua ezagutu, konkistatu eta gure bertsiorik onena landuaz inguruan harro eskaintzeko bide bat.

Helburuak

Galdera hauen erantzunak landuko ditugu:

- Nola maita genezake geure burua era eraginkor batean?
- Nola ezagutu genitzake gure dohainak eta ahulguneak? eta hauekin zer egin? Noiz eta non?
- Nola pasa naiteke nire burua egurtzetik indartzera?
- Nola bilakatu naiteke nire buruaren maitale onena eta munduari eskaini?
- Nola konturatu eta arduratu naiteke daukadan bizitzaz, nire bizitza ideala dela jakinda?

Landuko diren gaiak

Erabiliko diren iturriak: Somatizazioa, Barrua entzutea, PNL, Emozioen Kodea, Sofrologia, Benetan dena maitatu, Inkontzientearekin elkarrizketak, Desioen zerrenda, eta abar luze bat.

Metodologia

Ariketak eta kontzeptuak praktikatu eta barneratu ondoren, sortzen diren galderak erantzungo dira. Zenbaitutan ariketa praktikatu ondoren azalduko da. Beste batzuetan azaldu ondoren praktikatuko da. Ikastaroa erabat partehartzailea da. Ikastaroaren helburu nagusia, eskainitako informazioaren onura praktikak ekarriko digula oharzea da.

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* Urko AROZENA. Musikeneko irakaslea. Psikologia Positiboan, Kontrol Mentalean aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Motibatu nahi?

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Desberdinak gara denak eta uneoro desberdin sentitzen gara.
 Aritu ere, ezberdin aritzen gara.

Hiru bide izan ohi ditugu bizitzan aurrera egiteko:

- Bidearen amaieran saria bistaratzea.
- Zigor edo mehatxuek behartuta aritzea.
- **Automotibazioa edo motibazioaren bidea. Azken hau da, zalantzarik gabe, eraginkorrena, baliagarriena eta bakoitza gehien asebetetzen duena.**

Norberak bere burua motibatzea ez da beti erraza. Baina bizitzan gauza gehienak bezala, ikasi daiteke eta horixe da ikastaro honen **helburua: automotibatu eta motibatzeko ideia eta tresna desberdinak eskuratzea.**

Motibazioaren inguruko **hausnarketa** da egingo duguna. Pertsona bakoitza zein egoera edo unetan dagoen baloratzeko tresnak ezagutuko ditugu, eta, horren arabera, zein baliabide edo estrategia erabili erabakitzen ikasiko dugu.

Bai gudan, zein besteengan. Bakarka edo taldean.

Egunerokotasunean **erraz aplikatu daitezkeen ideia eta abilezia praktikoak** landuko ditugu, **erabiltzen dugun hizkuntza** edota **jarrera sortzaileari** erreparatuko diogu. Besteen ideiak onartu eta balioesteari, **galdera interesgarriak** egiteari edo eta **inguruko ohiturak zalantzan jartzeari** arreta jarriko diogu.

Motibazioa barne indarra da. Norberaren esku dago ilusioa piztea eta su hori mantentzea.

Motibatzen ikasi nahi?

* Nerea REDONDO OTAMENDI. Coaching trebatzailea eta Formakuntza Erreztailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Gorputz adierazpena: lan emozionala eta lan kooperatiboaren ikaskuntza iturria

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Ikaskuntza-eremu bakoitzak bere ekarpena egiten du, eta, Gorputz Adierazpenaren kasuan, zeregin hori gorputzaren portaera motorraren eta jolasen bitartez garatzen da. Gorputz Adierazpenaren inguruan sortzen diren pertsonen arteko harremanek hainbat balio barneratzen laguntzen dute; besteak beste: errespetua, onarpena edo lankidetzeta.

Norentzat

Lehen Hezkuntzan diharduten profesionalentzat. Ez da prestakuntza fisikorik behar.

Metodologia

Jardueren artean, proposamen fisikoaren bidez burututako jolasak eta jarduerak, sozializatorako, ondo pasatzeko, emozioak adierazteko, talde lanerako eta aktibitate kooperatiboetarako burutuko dira. Saio bakoitzean taldeko hausnarketarako denborari garrantzia emango zaio.

Izaera

Praktikoa (gimnasioan).

* **Natalia MONGE GÓMEZ.** Gorputz Hezkuntzako ikasketak eta Koreografia zuzendaritzako ikasketak burutu ondoren bere bi pasioetan banatzen du bere dedikazioa: dantza lanetan aritzen da bere Organik Dantza-Antzerki konpainiarekin eta Unibertsitateko irakasle eta ikerketa lanetan dihardu, Bilboko Magisteritza Eskolako Gorputz Adierazpeneko Departamentuan.

* *KOPURU MUGATUA* *

PLASTIKA TAILERRA

Hemen denak balio du!

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

- Ez zait ezer bururutzen!!
- Non lor ditzaket materiala horiek?
- Zelan apainduko dugu aurten gure gela?
- Eskatzen dituzun materialak oso garestiak dira!

Honelako esaldiak behin eta berriro entzuten ditugu gure eguneroko lanean.

Batzuetan plastika mundua beldurrez begiratzen dugulako eta bestetan erraz topa ditzakegun materialek eman ahal dizkiguten aukerak ez ditugulako ezagutzen. Arlo honetan hutsune bat nabaritzen da.

Zergatik ez erabili normalean birziklatzera botatzen ditugun gauzak (tapoiak, kutxak, tutuluak...) eta bizitza berri bat eman jostailuak, txotxongiloak... egiteko?

Egoera honi aurre egingo diogu eta guztion artean eta modu erraz baten saiaturako gara plastika-munduan beste modu baten begiratzen, "txip" aldaketa batekin.

Norentzat

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat bereziki, baita adin horretako umeekin ari diren begirale zein gurasoentzat ere.

Helburuak

- **Plastika-mundua beldur barik ikusi.**
- **Birziklatzearen garrantziaz ohartu.**
- **Plastika teknika desberdinak ezagutu.**
- **Esperientziak elkarbanatu.**
- **Sormena landu.**

Metodologia

Ikastaroa guztiz **praktiko eta dinamikoa** izango da, tailer bat.

Kartoiako platerak eta edalontziak, ur botilak, arrautz ontziak, oparietarako zintak... gure oinarri moduan harturik, gure eguneroko lanean benetan erabilgarriak izango diren jostailuak edo txotxongiloak eraikiko ditugu bizitza berri bat emateko.

* **Alazne UGARTETXEA.** Haur Hezkuntzako irakaslea eta umeemtzako tailerretan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

4 ELEMENTUak EUSKAL MITOLOGIAN

EUSKAL MITOLOGIA IRAKASTEKO DIDAKTIKA BAT

Uztailak 6 eta 7. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

Oro har, badakigu eta horrela adierazten dugu gure eginkizunetan, *euskal mitologia euskal kultura barnean*, askotan gizartearen oinarrian, kokatzen dela eta ezagutza horren transmisioa ezinbestekoa dela.

Ikastaro honen xedea, Mariaren mundua ezagutzeko bidean ibiltzea da, gero haurrei transmititu ahal izateko. Alde batetik, *euskal mitologiaren pertsonaia eta jeinu batzuek minizatuko gara, baita haien arteko harreman eta antolamenduez ere*, baina beti *haurrei transmititzeko didaktika erraz* eta ezagun bat erabiliz: *4 elementuak* (lurra, ura, sua, airea).

Horrez gain, euskal mitologiaren transmisioan lanean aritu eta jarraitzeko, *ekintza zehatzak proposatuko dira ikastaro bonetan*, euskal mitologia den altxorra transmititzeko proposamen konkretuak eskainiz.

Norentzat

Bere lan-jardueraren barnean euskal mitologiaren ezagutza transmititu nahi dutentzat (irakasleak, hezitzaileak, begiraleak, etab.), baita euskal mitologia maite duen ororentzat ere.

Helburua

- Euskal mitologia transmititzeko zergatia jorratzea.
- Euskal mitologiaren pertsonaia nagusiak eta haien arteko harremanak eta antolamendua ezagutzea.
- Transmisio-irakaskuntzarako proposamen zehatzak lantzea.

Metodologia

Metodologia praktikoan oinarritua bada ere, ezagutza teorikoak ikusiko ditugu era arin eta dinamiko batean.

* **Ixabel MILLET.** Euskal mitologian eta didaktikan aditua. Kontalaria, idazlea, formatzailea eta Hendaiako Bi'Arte elkarteko zuzendaria.

* *KOPURU MUGATUA* *

m a t r i k u l a

Matrikula epea: [maiatzaren 31 arte](#).

	Ikastaro 1	edo 2 ikastaro
Ikastaroen prezio arrunta	95 euro	150 euro
Prezio murriztuak:		
- Hazi Hezi ko harpideak	80 euro	130 euro
- hik hasi ko harpideak	60 euro	100 euro
- Hazi Hezi + hik hasi ko harpideak	50 euro	90 euro
- Langabetuak	60 euro	100 euro
- EHUko ikasleak	50 euro	90 euro

* Ikastetxeko harpidetza bakoitzaz irakasle bat balia liteke.

Ordainketa:

- Zure matrikula aintzat hartua izan dadin, diru-sarrera egin behar duzu kontu zenbaki honetan:
LABORAL KUTXA ES31 - 3035 - 0036 - 15 - 0360062005
- Diru-sarrera egiterakoan, jarri matrikulatuaren izena eta bi abizenak.
- Ordain-agiririk ez bidali.
- Ikastaroan lekurik ez badago edo ikastaroa egiten ez bada, dirua itzuli egingo zaizu.

Matrikula www.hikhasi.eus/topaketak helbidean sartuz.

Adi! Ekainaren 17an mezu bat jasoko duzu zure *helbide elektronikoan*, Topaketen egitaraua eta dagokizun ikastaroko xehetasunak adieraziz.

***Oharra: 2 ikastarotan parte hartu behar dutenek (bata Donostian eta bestea Leioan), bi matrikula txartel bete behar dituzte, ikastaro bakoitzarentzat bana.**

Obarra: antolatzaileen esku gelditzen da programari behar diren aldaketak egitea.

Antolatzaileak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Donostiako Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION